


Ezezaguna / Inédita

**OUKA LEELE**



## PRENTSA-DOSIERRA

2010ko ekainaren 30a, asteazkena

## ERAKUSKETA

**Artista:** Ouka Leele

**Izenburua:** Ezezaguna

**Lekua:** OKENDO KULTUR ETXEA

Nafarroa hiribidea, 7

20013 Donostia

**Erakusketa:** 2010ko ekainaren 30etik abuztuaren 21era

Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:30era

Larunbata 10:00 -14:00 eta 16:30 -20:00

**Inaugurazioa:** ekainaren 30ean, 11:30etan

**Antolatzaileak:** Kultura Ministerioa, Donostia Kultura

Okendon aurkeztuko den EZEZAGUNA erakusketak hain ospetsuak ez diren artistaren argazkiak ezagutzeko aukera eskainiko digu.

Formatu ertain eta handiko 45 lanen bidez egin ahal izango dugun ibilbide artistiko eta sentimentalak, teknikaren nagusitasuna eta etengabeko sormena islatzen duten zuri-beltzean eginiko lehen argazkietatik hasi eta mugikorraren bidez eginiko irudi digitaletan edo Photoshoparekin ukitutakoetan barna eramango gaitu.

“Ouka Leele Ezezaguna” erakusketak, publikoaren eta artistaren arteko topaketaren emozioa berreskuratu nahi du, Errenazimentuaren modura, obra amaitzean, artistak bertaratzen ziren publiko eta herritarrei bere artelana erakusten zienean bezalaxe. Bere bilakaera eta lorpen artistikoak ikusteko aukera paregabea dugu, bai eta bere obra ezagutzen duten guztiengan jakin-mina pizteko ere.

Irudiekin batera, 27 minutuko filma jaso da; bertan, artistaren lanaren hainbat une ageri dira, bai eta hainbat argazki margoturen proiektzioa eta opera baterako eginiko diseinua ere.

Bere ibilbidearen hainbat unetan eginiko lanak erakutsiz, bere mintzairaren sendotasuna antzeman ahal izango dugu.

## BIOGRAFIA

Bárbara Allende - Ouka Leele

Madrilen jaio zen **1957**ko ekainean.

Madril eta San Rafael artean eman zuen haurtzaroa eta, bertan, basoa ariman iltzatu zitzaion betiko.

Luze gabe, denbora gehiena marrazten, pintatzen eta arte-liburuak irensten ematen zuen.

**Museo del Pradon, El Greco**ren jantzien oihaletako koloreek eta pintzelkadek hunkitu egin zuten, Naturako koloreek zekarkioten hunkidura berdinez.

Esteponako azokan saldu zituen bere marrazkiak lehenengo aldiz, eta **seinale on** bat jaso zuen itsasontzi batetik pipa eta marinel-txanoa jantzita zituela jaitsi zenean: “**eta, jakin dezazula, oso ospetsua izango zarelako erosten dizkizudala**”.

**1976:** pintura-eskolako ikaskide batek aholkatuta, Photocentron sartu zen, loratzear ziren joeren haziak ereiten hasi ziren argazki-eskola bat. Bere lehenengo argazkiak Diorama Edicionesen *Principio, 9 jóvenes fotógrafos españoles* liburuan agertu ziren. **Une horretatik, bilatzen ez zuen argazkilaritza bere bizitza artistikoari itsatsi zitzaion alde egiten utzi gabe, berak ahaleginak egin arren.**

Margotzeko premia dela eta, pintura eta argazkilaritza bateratu zituen eta, hartara, bere-berea zuen mintzaira bat sortu zuen, argazkirako antzerki-eszenografiaren eta pinturaren arteko nahasketa. Beste artista batzuekin harremanetan, Arte Ederren karrera ikasteko ideia baztertu zuen, baita bilaketa artistikoan era autodidaktan aurreratzea ere.

**1978:** Bere bizilekua Bartzelonara lekualdatu zuen eta, bertan, “**Peluquería**” saila ondu zuen, **1979**an Bartzelonan lehenengo aldiz erakutsitakoa, eta **1980**an Madrilen: **inaugurazio-ekitaldira begietan zein ahoan argiak jarri zizkion txerrikume bat eraman zuen orraztuta bezala eta formatu handiko kameran hauspoak gogora ekartzen zituen hauspo moduko mozerroaz.**

**Antzerkia, dantza, zinema, argazkilaritza, pintura..., horiek dira bere obraren ibilbidea.**

**1980:** New Yorkera lekualdatu zen; han, bere lantokia bere jatorrietan sakonduz aurkituko duela jabetu zen, eta handik Mexikora bidaiatu zuen.

**1981:** Madrilerantz itzuli zen, **movida** bere gorenean zela, eta han geratzea erabaki zuen gaitz larri bat dela eta. Almodovarren *Laberinto de pasiones* filmerako kapeluak diseinatu zituen.

Oso urte biziak eta barne-hazkunde handiko urteak izan ziren, bizia galtzeko aukera ikusita.

**1984:** Gaitzetik osatu ondoren, bere obran islatu zituen bizitzari buruzko pasioa eta maitasuna.

**Parisen, VU agentziak bere obra mugitzen hasi zen, eta Tokiora eraman.**

**1987: Sao Paoloko La Bienalen** erakutsi zituen lanak.

La Cibeleseko “**Rapelle toi Barbará**” muntaketa handia egin zuen, **Atalanta e Hipomenes** mitoa adieraziz.

Atzera begirako erakusketa **Arte Garaikideko Espainiako Museoan**.

**1988:** Parisen finkatu zen **Fondation Cartier**-entzat polaroid erraldoien sorta bat egiteko. Denboraldi luzeak eman zituen Mallorcan eta, bertan, alabaren **1990**eko jaiotzarako prestatu zen.

Egindako margolanak Mallorcan jarri zituen erakusgai **Arcon**, eta salmenta-arrakasta itzela izan zen.

Izenean ia antzeman ezineko aldaketa bat egin zuen, E bat gehituz: **OUKA LEELE**, bizi eta mugimendu handiagoa emateko.

**2000:** Bere bilakaeraren etapa berri bat, argazkilaritzari estekatzen zioten sailkapenetatik ihesi. Bere biluzien argazkiak erakustea erabaki zuen, zuri-beltzean.

Lehenengo Bibliofiliako Sari Nazionala eskuratu zuen (**2003**) bere **El Cantar de los cantares**engatik, **bere serigrafiak eta marrazkiak** tartean.

Horma-irudi bat egin zuen **Ceutin (Murtzia)**: 300 metro koadroko “**Mi jardín metafísico**” (**2002-2004**). Berriz argitaratu zuen: **Floraleza (2005)**, Ahora Ediciones de Bibliofiliaren eskutik, horma-irudiari hertsiki lotutako poemak eta serigrafiak dituela. Egun, **Kixoteri** buruzko argitalpen berri bat ontzen ari da.

**2004: Madrilgo Erkidegoaren Kultura Saria** jaso zuen, eta bere obraren atzera begirako erakusketa bat burutu zen: “**Pulpo’s Boulevard**”.

**Rafael Gordonen La mirada de Ouka Leele** luzemetraia filmatu zuten, 2002n hasita.

**2005:** Argazkilaritzaren Sari Nazionala. Harrezkero, argazkilaritzari heldu zion berriz. Berriz ere, argazkilaritzak ez zion artistari ihes egiten utzi, bete-betea pinturan eta poesia ziharduen unean.

**2007: Benjamin Brittenen Curlew River** operaren eszenografia eta jantziak diseinatu zituen.

**La menina ingrávida** eta **Mi cuerpo es mi territorio** lanak egin zituen **Velazquezen Las Meninas** eta **Rubensen Hiru graziak** eta **Pariseko epaieketa** artelanen aurrean, eta **Museo del Pradon** jarri zituen erakusgai “**12 artistas Museo del Prado**” bilduman (**Fundación Amigos del Museo del Prado**ko ekoiztuta eta **Francisco Calvo Serraller** komisario zuela).

**2008:** “**OUKA LEELE INEDITA**” erakusketa antologikoa Argazkilaritzaren Sari Nazionala dela eta.

“**La metafísica de las Meninas**” lan egin zuen “**la Caixa**” Banca Privadarentzat.

“**ENTRE DOS MUNDOS**” bakarkako erakusketa **IBERIA BEIJING** arte-zentroan (Txina).

**Jaengo Unibertsitateko** erakusketa-areto berri inauguratu zuen “**Lo que yo más quiero**” erakusketaz.

**2009 : Madrilgo liburu-azoka. Poesia-liburuak argitaratu:**

**“De la embriaguez desnuda”. Editorial Sial.**

**“Este libro arde entre mis manos”. Editorial Huerga y Fierro,**

**Prestatzen:**

**-El Quijote de OUKA LEELE, Editorial Ahora, Ediciones de Bibliofiliaren liburu bat.**

## DOSSIER DE PRENSA

Miércoles, 30 de junio de 2010

## LA EXPOSICIÓN

**Artista:** Ouka Leele

**Título:** Inédita

**Lugar:** CENTRO CULTURAL OKENDO

Avenida de Navarra, 7

20013 San Sebastián

**Exposición:** del 30 de junio al 21 de agosto 2010

Lunes a viernes de 10:00 a 14:00 y de 16:00 a 20:30

Sábado de 10:00 a 14:00 y de 16:30 a 20:00

**Inauguración:** 30 de junio, 11:30

**Organizadores:** Ministerio de Cultura, Donostia Kultura

La exposición que se presenta en Okendo, INÉDITA, ofrece la oportunidad de conocer la obra fotográfica menos conocida de esta artista.

Un recorrido artístico y sentimental, presentado en 45 obras de mediano y gran formato, refleja el dominio técnico y la constante creatividad desde sus primeras fotografías, en blanco y negro, hasta las imágenes digitales realizadas con el móvil o retocadas en Photoshop.

“Ouka Leele Inédita” quiere recuperar la emoción del encuentro entre el público y el artista, a la manera del Renacimiento, cuando al acabar una obra, el artista la mostraba en público y los ciudadanos acudían a verla. Es una oportunidad única para contemplar su evolución y logros artísticos, así como para despertar la curiosidad en todos los conocedores de su obra.

Junto a las imágenes se ha incluido una película de 27 minutos en la que se muestran diferentes momentos del trabajo de la artista, así como la proyección de diferentes fotografías pintadas y el diseño que realizó para una opera.

La presencia de obras realizadas en distintos momentos de su carrera hace posible apreciar la consolidación de su lenguaje.

## **BIOGRAFÍA**

Bárbara Allende - Ouka Leele

Nace en Madrid en Junio **1957**.

Pasa su infancia entre Madrid y San Rafael, donde el bosque se clava en su alma para siempre.

Muy pronto, pasa la mayor parte del tiempo dibujando, pintando y devorando libros de arte.

En el **Museo del Prado** se emociona con los colores y pinceladas de las telas en los ropajes de **El Greco**. La misma emoción que le evocan los colores de la Naturaleza. Vendiendo por primera vez sus dibujos en el rastro de Estepona, recibe un **buen augurio** de un comprador que bajó de un barco con su pipa y su gorra de marinero: “**y que sepas que te los compro porque sé que vas a ser muy famosa**”.

**1976: Aconsejada por un compañero de la escuela de pintura, se integra en Photocentro, una escuela de fotografía donde empezaban a sembrarse las semillas de las tendencias artísticas en ciernes.** Sus primeras fotos se incluyen en el libro de Diorama Ediciones: “**Principio, 9 jóvenes fotógrafos españoles**”. **Desde ese momento la fotografía que no buscaba, se entrelaza en su vida artística sin dejarla escapar a pesar de muchos intentos.**

Su necesidad de pintar, la empuja hacia la fusión de pintura y fotografía, desarrollando así ese lenguaje personalísimo, mezcla de escenografía teatral para ser fotografiada y pintura. En contacto con otros artistas, decide abandonar la idea de estudiar la carrera de Bellas Artes y avanzar en su búsqueda artística de manera autodidacta.

**1978:** Traslada su residencia a Barcelona donde realiza la serie “**Peluquería**”, que se expone por primera vez en **1979** en Barcelona, y en **1980**, en Madrid **con una acción inaugural llevando un cochinillo al que ha puesto luces en los ojos y en la boca, como peinado y un vestido fuelle que recuerda los fuelles de las cámaras de gran formato.**

**Teatro, danza, cine, fotografía, pintura... conforman el devenir de su obra.**

**1980:** Se traslada a Nueva York, donde toma conciencia de que su lugar de trabajo lo encuentra ahondando en sus orígenes, y desde allí viaja a Méjico.

**1981:** Regresa a Madrid, en plena **movida** y decide quedarse debido a una grave enfermedad. Realiza los diseños de los sombreros de la película **Laberinto de Pasiones, de Almodóvar.**

Son años muy intensos y de gran crecimiento interior, ante la posibilidad de perder la vida.

**1984:** Tras superar la enfermedad, su pasión y amor por la vida se reflejan en su obra.

**En París, la agencia VU comienza a mover su obra, llevándola a Tokio.**

**1987:** Expone en **La Bienal de Sao Paolo**.

Realiza el gran montaje de **La Cibeles “ Rapelle toi Barbará “** representando el mito de **Atalanta e Hipómenes**.

Exposición retrospectiva en el **Museo Español de Arte Contemporáneo**.

**1988:** Se instala en París para realizar la serie de polaroids gigantes para la **Fondation Cartier**. Pasa largas temporadas en Mallorca, donde se prepara para el nacimiento de su hija en **1990**.

Expone las pinturas realizadas en Mallorca en **Arco** con un éxito total de ventas.

Realiza un cambio casi imperceptible en el nombre añadiendo una E más, **OUKA LEELE**, para darle más vida y movimiento.

**2000:** Nueva etapa en su evolución, huyendo de encasillamientos que la aten a la fotografía. Decide exponer sus fotografías al desnudo, en blanco y negro.

Recibe el **Primer Premio Nacional de Bibliofilia (2003)** por **“El Cantar de los Cantares” con sus serigrafías y dibujos**.

Realización de un mural en **Ceutí, Murcia: “ Mi jardín metafísico” (2002-2004)** de 300 metros cuadrados. Edita de nuevo con Ahora Ediciones de bibliofilia **“Floraleza”(2005)** Con sus poemas y serigrafías íntimamente relacionados con el mural. Prepara en la actualidad una nueva edición sobre **El Quijote**.

**2004:** Recibe el **Premio de Cultura de la Comunidad de Madrid** y se realiza una exposición retrospectiva de su obra: **“ Pulpo’s Boulevard”**.

Se rueda **“ La mirada de Ouka Leele”**, largometraje de **Rafael Gordon**, comenzado en 2002

**2005:** **Premio Nacional de Fotografía**. Que le lleva a retomar la fotografía. De nuevo, la fotografía no deja a la artista escapar, en un momento en que estaba de lleno dedicada a la pintura y a la poesía.

**2007:** Diseño de escenografía y vestuario para la ópera **“Curlew River”** de **Benjamín Britten**.

Realiza las obras **“ La menina ingrávida”** y **“ Mi cuerpo es mi territorio”**, ante **Las Meninas de Velázquez y Las Tres Gracias y El Juicio de Paris de Rubens**, que expone en el **Museo del Prado** formando parte de la colección: **“ 12 artistas en el Museo del Prado”** producida por la **Fundación Amigos del Museo del Prado** y comisariada por **Francisco Calvo Serraller**.

**2008:** **“OUKA LEELE INEDITA”** exposición antológica por el **Premio Nacional de Fotografía**.

Realiza la obra **“La Metafísica de las Meninas”** para **“la Caixa” Banca Privada**.

Solo exhibition **“ENTRE DOS MUNDOS”** Centro de arte **IBERIA BEIJING, China**.

Inagura la nueva sala de exposiciones de la **Universidad de Jaén** con la exposición **“ Lo que yo más quiero”**

**2009 :** **Feria del libro de Madrid . Publicación de los libros de Poesía :**

“De la embriaguez desnuda”. Editorial Sial.

“Este libro arde entre mis manos”. Editorial Huerga y Fierro,

**En preparación:**

-El Quijote de OUKA LEELE, un libro de bibliofilia de la Editorial Ahora.